

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Barcina Lehendakariak kirolaren balio onenak gazteenengana iristaraztea defendatu du

Adierazpena Iruñan hasiko den 2012ko Espainiako Itzuliaren aurreko egunean egin du

Viernes, 17 de agosto de 2012

Yolanda Barcina Nafarroako Lehendakariak “kirolaren balio onenak gazteenengana iristaraztearen” garrantzia azpimarratu du. Honakoa adierazi du larunbat honetan, hilak 18, Iruñean hasi behar den 2012ko Espainiako Itzulian parte hartuko duten taldeen aurkezpen ekitaldiaren ostean egindako harrera ofizialean.



Guillén, Barcina Lehendakaria eta Maya alkatea lehen etaparen irabazleari emango zaion sariarekin.

Ekitaldian, gaur gauean Iruñako Gotorlekuko Armen Aretoan burututakoa, Enrique Maya hiriko alkatea, Javier Guillén Itzuliko zuzendaria, Nafarroako Gobernuko hainbat kontseilari, beste hainbat agintari, eta taldeetako eta enpresa babesleetako ordezkariak izan dira.

“Kirol gertakari garrantzitsuenetako bati” ongietorria eman ostean, Lehendakariak esan du “Giroarekin, Tourrarekin, Joku Olinpikoekin eta, orain, Itzuliarekin, urte honetan Munduak bizi duen kirol tsunamira” gehitu dela Foru Komunitatea.

Agerraldiaren beste une batean, “Nafarroan txirringularitzara dagoen zaletasun handia” azpimarratu du Barcinak. Era berean, “herritarrek kirola gehien praktikatzen duten erkidegoetarikoa dela” nabarmendu du.

Lehendakariak, gainera, Miguel Induráin txirringulari nafar ohiaren irudia glosatu du. Beretaz esan du “txirringularitzaren mitoetariko bat” eta “Foru Komunitateko enbaxadorerik onena” dela, bai kirolari bai eta pertsona bezala ere. Honez gain, oinarrizko kirolari emandako laguntza eta bere elkartasuna nabarmendu ditu.

Itzuliari esker Nafarroak izango duen nazioarteko oihartzunaz ere hitz egin du Barcinak, 150 herrialde baino gehiagotan ikusi ahal izango delako. “Foru Komunitateko izen ona munduko beste hainbat tokitara zabaltzeko” modua dela esan du.

Bestalde, Maya alkateak azpimarratu du historian lehen aldia dela

Nafarroako hiriburuak Itzuliaren hasiera hartzen duela eta “munduko txirrindularitzarik onenak Iruñan ikusteko aukera bikaina” dela. Javier Guillén-ek adierazi du “Nafarroarik gabe txirrindularitza ulertzea ezinezkoa dela”.

Ekitaldiaren aurretik, 19.30etan, 2012ko Espainiako Itzulian parte hartuko duten 22 taldeen aurkezpena egin da. TVE-ko Teledeportek zuzenean eskaini duen ekitaldia honetan “Nafarroa, gorrizaletasuna” bideo promozionala ikusi ahal izan da, Nafarroako Gobernuak ekoiztuakoa.